“Tailer biziak” ikus-entzunezko elkarrizketa sorta osatu dugu, eskualdeko emakume* sortzaileekin

Azaroan zehar astero bi ale plazaratuko ditugu Bor-borren sare sozialetan (Instagram kontuan) eta www.labur.eus/borbor blogean. Elkarrizketak Bor-bor liburuxkan egongo dira irakurgai urtearen amaieran.

-

Tokiko memoria eta ezagutza feminista euskaraz jaso eta zabaltzea helburu, TAILER BIZIAK ikus-entzunezkoen proiektua aurkeztu du Bor-bor Aiaraldeko Feminismo Elkarteak. Oraingoan, formakuntza tailer presentzialak eta multimedia saioak uztartu dituzte, Arabako Foru Aldundiaren eta Laia Eskolaren laguntzarekin.

Modu horretan, urtarriletik ekainera Aitziber Duarte keramika artisauarekin saretzeko tailer bana egin dute hilero helduentzat. Gazteentzat, berriz, 6-7 jarduera burutu dituzte azken asteetan. Udan, esaterako, Aiarandreen taupadak elkartekoekin batukada tailerraz gozatu zuten 28 neska* gaztek.

Ikus-entzunezkoen sortaren bidez, tokiko emakume* sortzaileen ibilbide, esperientzia eta gogoetak pilatu dituzte oraingoan. Multimedia lanak Youtube eta Instagram kontuetan zabalduko dira, baina prentsa ohar bidez ere partekatuko dituzte interesa duten beste webgune eta komunikazio kanal batzuetan argitaratzeko.

Aurtengo denboraldiak 9 atal izango ditu, gonbidatuak ondorengoak izango direlarik:

1. Gurene Grande
2. Maied Urrutia
3. Malen Atxa
4. Txani Rodrigez
5. Garazi Dorronsoro
6. Aitziber Duarte
7. Raisa Alava
8. Marratik at
9. Yogurinha Borova

Sare sozialetarako egokitutako bideoetan, berriz, eskualdeko emakume* erreferente bakoitzak berarentzat ahalduntzeko esanguratsua izan den une edo ekintza bat, esaldi bat eta emakume* bat aipatuko ditu.

Ikus-entzunezko guztiak erreprodukzio zerrenda propioan egongo dira ikusgai, azaroaren 30etik aurrera. Bien bitartean, astero bi pieza zabalduko dituzte, aurreratu dutenez.